

Ezpeleta

Aurkibidea

Udalerria: Ezpeleta

Sarrera



Lapurdi Garaia eskualdeko herria da piper gorriak hain ezaguna egin duen herria. Ezpeletar esapide ezagunak honela dio: «Euskaldun, fededun, biperdun». Uztaritze eta Larresoro ditu iparraldean, Ainhoa eta Zuraide mendebaldean eta Itsasu ekialdean.

- **Biztanleak:** 2.006
- **Euskaldunak:** %14,96

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **3**
- Pasarteak: **14**

- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **0**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus

Hizlariak

Pierre Sauveur Noblia (1927-2019)



Ezpeletako Basaburu auzoko mendialdeko Segurako bordan sortu zen Sauveur Noblia 1927ko buruilaren (irailaren) 11n. Gaztea zelarik kontrabandoan aritu zen tokiko gazte anitz bezala, baina betidanik artzaintzan eta laborantzan ari izan zen. 20 urterekin zerbitzu militarra joan zen. Handik, Segurako bordan segitu zuen lanean. Ainhoar batekin esposatu zen eta zenbait urte joan ondoren, herritik hurbildu ziren eta Basaburu auzoan erosi zuten etxea. Herriko kontseilari izan zen hainbat urtez.

Panpi Olaizola (1980)



Panpi Olaizola 1980an jaio zen Baionan, nahiz eta egun gutxitara Ezpeletara joan zen bizitzera. Laboraria da eta beste gauza batzuen artean, Ezpeletako piperra eta Itsasuko gereziak ekoizten ditu. Ardiak ere baditu eta udan oinezko ibilbideak (eta umeentzat astoekin) ibilbideak antolatzen ditu. Errobi Herri Elkarkoan ere lan egiten du euskara teknikari bezala lanaldi erdiz.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ezpeletar semea (EZP-001/001)

Pierre-Sauveur (edo Sauveur) Ezpeletako Segurakobordan sortu zen 1927ko buruilaren 11an. Aita-amak biak Ezpeletakoak zituen. Bederatzi haurrideetarik gazteena izan zen.

2. 'Hamar ofizio eta zortzi miseria' (EZP-001/002)

Betidanik laborantzan aritu zen Sauveur, artzaintzan, mendialdean kokaturik zen sortetxean. Haurrak sortu zirelarik, eskolatik hurbilagoa zegoen etxe bat erostea erabaki zuten.

3. Gerla denboran Ezpeletan berean egona (EZP-001/003)

1933an sartu zen eskolara Sauveur, baina sei urteren buruan gelditzeko behartua, 2. munduko gerla hasi orduko. Etxeetako gizon gehienak Alemaniara joan ziren, baina "kozkor" batzuk bertan egon.

4. Mutil eta kontrabandista (EZP-001/004)

12 urte zituelarik, Ameriketatik hona itzuli zen osabaren baserri etxean egon zen mutil, Basusarrin. Geroztik, kontrabandoan aritu zen 16 urteetan kontrabandoan.

5. Kontrabandoan kabala eta objektuak ibiltzen (EZP-001/005)

Sauveurrek kontatzen digu kabala anitz ibiltzen zutela kontrabandoan: ardi, behi, idi, mando etab. Horrez gain, mota guzietako gauza asko pasarazten zuten, bizkarrean: nakarrezko botoi, dentela, kautxu, kamioietako errota...

6. Kontrabandoan larrua ibiltzen (EZP-001/006)

Sauveur 20 urte zituelarik soldadu joan zen, 1947an. Egun batez, kontrabandoan zebiltzan bere anaiak sosa irabazteko proposamena egin zion. Eta hola hasi zen Sauveur larruketan ibiltzen.

7. Soldadugoa Frantzia iparraldean (EZP-001/007)

Garai horretan, 20 urte zituztenak soldadu joaten ziren. Sauveur Parisera joan zen, eta geroztik Rouen eta Blois hirietara. Garaia berezia izanik ere, egun ederrak iragan zituela dio Sauveurrek.

8. Armadako kontuak (EZP-001/008)

Soldadugoa euskaldun anitzekin egin zuen Sauveurrek, hala nola Jacques eta Dominique Añorga ainhoar anaiak. Gerlako prestatzen ikasten zuten orduan: nola pasa, nola ibil... Tiratzen ikasten zuten ere. Kaporal bilakatu zen hiru hilabeteren buruan.

9. Soldadugoak egin ongiak (EZP-001/009)

Soldadugoaz fierra da Sauveur. Semeek aitaren bidea segitu dute biek berek soldadugoa, paraxutista gisa. Sauveurrek gauzak franko ikasi zuen, hala nola arropak zuritzen eta zapatak ziratzten. Baina garrantziagoa zaiona diziplinaren ikastea izan zen.

10. Segurako bordako bederatzigarrena (EZP-001/010)

Anai-arrebetarik bederatzigarrena zen Sauveur. Haren burasoek etxaldearen segida har zezan nahi izan zuten beti, haren lagun gehienak Ameriketara joaten zirelarik. Ainhoako neskatxa polit batekin ezkondu zirelarik, Segurako bordatik joatea erabaki zuten, herri erditik urrunegi zelako.

11. Eskolan ikasitako oinarrizko jakitateak (EZP-001/011)

Sauveur sei urtez ibili zen eskolan. Oroitzen da leitzen eta izkiriartzen arras ongi ikasi zuela. Kontuak egiten ere denbora hartan ikasi zuen: batuketak, kenketak eta biderketak. Harritzen da gaur nola hurrek ez duten 12 urteetan holako oinarrizko jakitateak menperatzen.

12. Basaburuko eskola (EZP-001/012)

Ezpeletan hiru lehen mailako eskola zeuden, bata pribatua, serorek segurtaturik, bertze biak 'laikoak' (publikoak): herri erdikoa eta Basaburukoa. Sauveur eta bere familia azken horretan ibili zen. Garaiko 'zertifikata' (ikasteko agiria) eskolan berean pasatzen zuten. Bere haurrak ere eskola horretarik pasatu ziren. Geroztik hetsi zen.

13. Frantsesa eskolan ikasi eta kanpoan hobetu (EZP-001/013)

Ez zekian frantsesik eskolara joan gabe. Errazki ikasi izan zuen frantsesa Sauveurrek. Euskaraz ari zirelarik haurrak, punituak ziren Ezpeletan ere. Eskolan frantsesaren oinarriak ikasi ondotik, han eta hemen ibiliz hobetu zuen bere hizkuntza maila.

14. Eskolara oinez joaten kloskaz edo eskalapoiz (EZP-001/014)

Eskolara joateko, bi oren behar zuten Basaburuko haurrek, etxeak mendialdeko partean izanik. Etxetik partitzean, kloskak edo eskalapoia ezartzen zituzten. Eskolara arribatzean, berriz, espartin idorrakoak janzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com